

Etxalarko usategiak

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

- E**txalarko Iguzkiagerreko Arribillaga-tar famili artxibua.
- Etxe bereko M.^a Isabel-en ahozko informazioa.
 - Etxalarko Udaletxeko artxibua.
 - Etxalarko Parrokiako artxibua.
 - Iruñeko Artzapezpikutegiko artxibua.
 - La chasse traditionnelle a la palombe. Les palomieres de Sare. Jean Hiriart. Bayonne.
 - Bautista eta Jabier Iparragirre-ren ahozko informazioa.
 - «Gure Herria» aldizkaria, 1923.

Marrazkiak: Imanol Iturria

AITZIN SOLASA

Zer da aurkitzen ahal duzuna lantxo honetan? Etxalarko Usategiei buruzko zenbait informazio. Informazio zati bat berria da, ez ezagunak diren datuak ere argitaratzen baitira. Hauetatik gehienak 19. eta 20. mendekoak, baina bai lehenagokoak ere, eta nahiko zaharrak batzuk.

Usategiez ezagutzen denaren bilketa dei daiteke lan honen beste alderdia. Etxalarko sarezko ehizaz aunitz idatzi da, egunkari eta aldizkaritan bereziki. Ahoz ere banatu dira ehiza honen berriak. Horrela ezaguna den informazioa ere bilduta aurkituko duzu hemen.



Badakit gehiago lantzen ahal dela gai hau, nahiz ikerketa aldetik nahiz bilketa aldetik. Eta hori nik egiteak, hemen dagoenaren argitaratzea aunitz gibeleratuko lukeela ere ohartzen naiz. Horregatik, eta jakitun baten aholkuari jarraikiz ¹, hobe iduritzen zait aurkitutakoa eta bildutakoa lehenbai-

1. Kontseilua segituz.

tlehen argitaratzea. Ez baitut uste argitalpen hau, geroago burutzen ahal den osaketa eta aberasketaren eragozpen² izanen denik.

EHIZAREN LEKUA ETA NOLAKOTASUNA

Urria. Eguna argitzen. Dena isilik. Eta batbatean, tuu!, korneta soinua: usoak heldu dira, Sara aldetik Etxalarrerantz, Iarmendi mendirat. Usazaleak oihu: u! u! u!, hor! hor! Zatar xuriak inarrosi dituzte han, makilak bota hemen. Usoek behehirantz jo dute, eta mendi gaina gaintitzerakoan, lurretik urbil, sareak ustekabean erori eta batzuk azpian preso gelditu dira. Bertzeek hegoaldera bizkor jo dute, baina sareak eroritakoan bigarren korneta hotsa entzun da, eta ehizturiek alde guztietatik tiroka eraso³ dituzte. Hala ere, gehienek ihes egitea lortu dute.

Etxalarren, udazkeneko edozein egunetako gertakaria da hau.

Etxalarko Usategiak Lapurdi eta Nafarroa arteko mugan daude kokaturik⁴, Estatu espainiar eta frantziarraren arteko mugan, Iarmendi mendian, 500en bat metro alturan. Etxalar eta Sarako dermioetan banaturik. Ikus I. marrazkia.

Sareak 46. zenbakia daraman mugarritik metro batzutara daude, Etxalarko dermioan. Sei dira sareak eta beraien izenak, ezkerretik eskuinerantz, Fortuna, Monua, Kalamua, Miarra, Elusa eta Lakaina dira. Denetan haundiena Elusa da, 46. mugarri parean kokatua. Honek eta Lakainak 17 metro altura dute. Bertzeak tikitzen doaz, 10 metrotaraino. Sarearen zuloak, zazpi edo zazpi terdi zentimetrokoak dira. Eta Elusak 200en bat zulo dauzka. Aspalditik neurri berdinak edo berdintsuak dituzte. Iguzkiagerreko nagusiak 1829an Florencio Sanz idazleari dio: «mendiaren zintzurreen dagoena da haundiena, 20ren bat «vara» alturakoa (ia 17 metro). Zabalera, hori bera du. Baina sareak, zabalean, zortziren bat metro gehiago dauzka, 25en bat denetara, zorro egin dezan eta usoak harrapatu». Neurriak, bada, ez dira aldatu bi mende hauetan behinik behin. Ikus II. marrazkia.


Aldatu dena, sare kopurua da. Hemeretzigarren mendearen azken-aldira arte lau sare paratzen ziren: Elusakoa, Miarra, Kalamua eta Munua. 1869an paratu zuten bosgarren sarea: Fortuna. Eta beranduago, 1920.aren inguruan, Lakaina izenekoa.

Sareak, lehen, Etxalarren, Usategietan bertan egiten zituzten usazaleek, haria («tralla») Frantziatik eta Donostiatik ekarriz. Ikusten ahal da oraindik 1863an Parisetik ekarritako hariaren ageria. Eta 1894ean Angers-etik ekarritakoarena. 1920. urte inguruan, sare baten gostarioa 60 pezetatakoa zen, 1930.enean 100 pezetatakoa. 1960.etik naylon-ezko haria erabili da. Oraingo sareek hamar urte ongi irauten dute, eta, konponduz, baita urte batzuk gehiago ere. Lehengoek, konponduta ere, 8-10 urtetako bizia zuten. Gehien hondatzen direnak Elusakoa eta Miarra dira, uso gehiena eurek biltzen baitute.

2. Traba.

3. Atakatu.

4. Lekturirik.



I. marrazkia

Ehizaren antolakuntza

Usoa, gehien bat, eguna argizetik hamarrak arte etortzen da. Eguerdi aldean ere, noiz behinka bai, eta etorrera hori ezin hobea da usazaleentzat (sarezko ehiza langileentzat): ehiztaria, aspertuta, joana delako ordurako, eta haizerik ez. Eguraldi garbi eta fina da egokiena, ipar-ekialdeko haizeak jotzen duenean.

Baina usoak ez dira nolnahi etortzen, ezta ere bere kasa apalki sareetan sartzen. Usoak ekarri eta sarrerazi egiten dituzte. Horregatik, sareez eta sare erabiltzaileez gainera, bertze tresnak eta bertze jendek badu zeregina usategiko ehiza honetan.

Sara aldetik datorren usoak pasabide zabala aurkitzen du bere aitzinean: Lizarieta, Txorilepo, Gaztainlepo, bi kilometrotako zabalduria Iarmendi mendian. Elusako lepoan usoa sarrerari nahi bada, aunitz lekutatik bultzatu behar zaio, bertze bidetatik joan ez dadin. Ikus II. marrazkia.

Zatarrak, makilak, turuta edo korneta eta txistua: hara horretarako erabiltzen diren tresnak. Zatarra, makila bati lotutako zapia, zuria eta luze samarra da; eta eskuz inarrosiz, kolorea eta zaratagatik usoa izutu eta bertze aldera bideratzen du. Makilak, altza zurez egina eta kisuz zuritua, usoa beherarazi egiten du, mendi gainera ailegatzekoan sare gainetik igaro ez dadin. Ping-pong palaren iduria du. Miru edo antzeko egazti harrapariren iduria hartzen die usoak makila hauei eta ihes egiten du. Ikus III. marrazkia.

Puntu batzutan, goitik aritzea gomeni da, eta horretarako dira trepak. Ikusteko nahiz makilak botatzeko, metro batzuk goitiagotik lan egiteak abantaila badu. Lau trepa dira. Hiruk badute deitura berezia: Trepagibela, Bigelekotrepa, Aritzeko trepa. Laugarrenak ez du deitura berezirik, hura «Tropa» da, eta hura da Tropa nagusia. Hain zuzen, Tropa honetako gizona izaten da taldearen zuzendaria. Orain ikusten dugun Tropa nagusia, harrizkoa, 1916an eraikia da; Trepagibela berriz, burnizkoa, duela 25en bat urte. Trepak 15-20 metro altuera dute; Trepagibela da altuena.

Ehiza lanerako gizonak kokatzen diren lekuak hauek dira:

Abat-arri; turuta eta zatarrak lan egiten da.

Domikua: zatarrak.

Arrikua: zatarrak. Hiru hauek, Gaztainlepokoak, 1971n kendu zituzten.

Larrekua: korneta eta zatarrak.

Idoikoa: zatarra eta makilaz.

Belata: zatarra eta makilaz.


Tropa: txistuz eta makilaz.

Trepagibela: makilaz.


Haritzeko Tropa: makilaz.

Gibeltrepa: makilaz. Ikus II. - XI. marrazkiak.

Lan hauetan ari direnei «usazale» deitzen zaie. Usazaleen eginkizunak ezberdinak direnez, hauen arabera bereizten dira eta izendatzen ere. «Abatarriak», adibidez, gaztelaniaz abatero; egaztia beherazten aritzen denari ezartzen zaion deitura iduri du. Sare ondoan ere, lurtean, bada zeregina: sareak bota eta jaso, usoak sareetatik bildu, etabar. Denetara Usategietan hamairu bat lagun dira usazaleak.



II. marrazkia



III. marrazkia

Mende honetan eta 19.ean, lan tresnak eta lan moduak berdintsuak izan dira, eta langile edo usazale kopurua ere berdintsua. 1825. urtean, Iguzkiagerreko Francisco Jabier Berruetak Elizondoko polizia buruari azaltzen zion: «Ehiza, oihu, txistu eta makilaz egiten da; hauek, ehizturiek usoei botatzen dizkietenak». Lan egiten zutenak urte horretan 12 ziren: hiru trepetan eta bederatzi zatar eta sareetan. Ez dugu ahaztu behar lau zirela sareak denbora hartan. Xehetasun gehiago eskaintzen du Berruetak, 1829an Florencio Sanz idazleari egindako gutunean ⁵: Sareetan lauek egiten du lan: bota, jaso eta usoa bildu. Zuhaitz gaineko trepetan, bertze hiruk; eta seik zatarrez, denen buru Trepa nagusikoa delarik. Guztira: 13 gizon. Arribillagak, 1863. urtean, honako usazale hauek aipatzen ditu: Trepa nagusian bat; Bigarren trepan, bertzea; Aritzeko trepan 3.a.; Domiko trepan 4.a.; Bosgarrena, Arriko abataria; seigarrena, Belateko abataria; zazpigarrena, Idoiko abataria, eta 8.a, Larreko abataria. Horiez gain izango ziren sarekoak, etabar. Bosgarren sarea paratu zutenean, 1869. urtean, abatari berri bat paratu zuten: Arrizurietan.

Ehiza denbora: gaur egun, Urriaren lehenetik azaroaren hogeira arte luzatzen da Usategietako ehiza lana, nahiz egun bat edo bertzeren gorabehera izan, eguraldiaren arabera. Lehen San Migel eguna eta San Martin eguna izaten ziren ehiza denboraldiaren hastapen eta amaiera egunak. Horrela ageri da 19. mendeko lehenbiziko urteetan.

Bertze ehiza motak.

Uso ehizak eman die izena eta entzuna Etxalarko Usategiei. Baina ez zen usoa bakarria usategi hauetan aintzina harrapatzen zena; ttortoilak ere sareetan biltzen baitzuten, baita oilagorrak ere. 1827 eta 1829ko paperetan ttortoilak ehiza ageri da. Abuztuaren 15-etik irailaren 29ra artekoa zen ehiza sasoiak: Andre Mari egunetik San Migel egunera artekoa; egun honetan uso ehiza nagusitzen zen. Ttortoilak nahiko garrantzitsuak izan da, orain ez bezalako multzoak igarotzen ⁶ ziren eta sare zuloetan trabatu. Sare bereziak erabiltzen ziren, usoenak baino txikiagoak eta zulo txikiagoz hornituak. Ezarri ere zerbait iparralderago ezartzen ziren, Sarako eremu barrenetik, baina mugatik hagitz urbil. 1925etik ez da ttortoilarik sarek ehizatu, etxalartarrei dagokienez behinik behin.

Oilagorrak berriz, uso sareez harrapatzen zituzten, eta sasoi berean, egunsentiko ⁷ eta ilunabarreko orduetan. Badira ehiza honen aipamenak 1829an, 1869-1870ean. Behar bada, ez da egin etengabeki ⁸ urtero, usoa bezala.

Usategietan, eta usategien zereginetarako, bazen eta bada etxola bat; usoak edukitzeko, jatekoa prestatzeko, eguraldi txarra dela-ta usazaleak ordu batzuk igarotzeko, eta baita bertan gaua pasatzeko ere. 1826an etxola berritu zuten. Baina gaur egun ikusten duguna, 1887. urtekoa da, lehengoaren ondoan berritik eraikia ⁹. Bere aurrekontua: 6.000 erreale.


5. Kartan.

6. Pasatzen.

7. Egun argitzeko.

8. Segidan.


9. Jaso.




IV. marrazkia




V. marrazkia




VI. marrazkia




VII. marrazkia



VIII. marrazkia




IX. marrazkia



7

IDOIKOA

X. marrazkia



8

LARREKUA

XI. marrazkia

TALDEAREN ANTOLAKUNTZA

Usategiekin zerikusi haundiena dutenak, hango ehizaren gora-beherak bere gain daramazkitenak, nagusiak eta «usazale» deituak dira: ehiza eskubideen eta tokiaren jabeak eta ehiza lana egiten dutenak.

Usategien nagusiak hiru dira: Gaztelua etxea, Iguzkiagerrea etxea eta Sara herria. Sarak eta Gazteluak eskubide hori, guk ezagupena dugun denbora guztian izandu dute; hirurehun urte eta gehiago. Iguzkiagerreak, 1812. urteaz geroztik dauka Usategien eskubide eta jabegoa. Urte horretan, Petrisantzena etxeko nagusiak, Tomas Santziñenak, Iguzkiagerreko nagusiari, Frantzisko Jabier Berruetari, Elusako sarearen eskubidea saldu zion, horrek berekin zeramazkien bertze eskubide guztiekin: lur, tresneria eta abar. Salmentaren neurria: 406 dukatu eta 6 erreal. Ordurarte, salmenta paperean ageri denez, ehiza eskubide hori, oroitezinezko denboretan, Petrisantzena etxearena zen. Etxe hau, orain desagertua, Patxikusantzena edo Bagolea etxe ondoan zegoen kokaturik ¹⁰, horren segidan orain eraiki ¹¹ berri den «Mendibide»ren leku beretsuan.

Kuriosoa da Lahet Juzan Dominiqek hemezortzigarren mendearen azken aldera esaten diguna: «Sareen nagusi horietako bat haundiki aberatsa da, eta bertzea ikazkina. Behartu nahi izan dute hau bere ehiza eskubidea saldu dezan, dirutza haundia ordainduz», baina berak ezetz. «Nahiago diet nire hilobei ondra utzi aberastasunak baino», erran zion ikazkinak. Gizatasunez jantzitako gizona dirudi Santzinena jaunak.

1869. urtera arte paratzen ziren lau sareetatik, haundiena, Elusakoa, Iguzkiagerrea etxearena zen, Miarra deitua Gaztelua-rena, eta Kalamua eta Munua, jarraian daudenak, Sara herriarenak. Xehago, bi sare hauen eskubidea erregearena edo gobernu frantziarrarena zen, eta honen izenean Sarako alkatea jabetzen zen. Alkateak berriz, herriko jendeari uzten zion eskubide hori, errenta ordez, ehizturi elkarteari. 1825.eko F. Jabier Berruetaren gutunean horrela azaltzen da. Eta gaur ere berdin jarraitzen du.

1877. urtean, Felipe Gazteluk, eta Bibiana Hualde eta Victoriano Arribillagak (azken biak, Iguzkiagerrekoak), sarezko ehizarako elkarte zabalagoa sortu zuten, hamar urtetako iraupena izanen zuena. Elkartearen sinadura egiterakoan, usategien jabetza Gaztelua eta Iguzkiagerrearena zela garbi utzi zuten. Elkartekideak, lehen aipatutakoez gain, hauek ziren:

Abbadie, Lerenboure eta Miguel Crespo, Sarakoak;

Tiburtzio Hualde, Iruritakoa;

Pablo Garcia, Pedro Irigoien, eta Fernando Palacios, Iruñekoak.

Usazaleak. Usazaleak edo ehiza langileak, nagusiek aukeratzen zituzten urtero, eta gaur ere hauen esku daude. Hemeretzigarren mendeko lehen erdialdian, usazaleak bi herrietakok izaten ziren, Sarakok eta Etxalarkok. Bi sare Etxalartarrenak baitziren eta bertze bi Saratarrenak, usazale hautaketa eta bertze eskubideak ere arabera zeuzkaten banatuak. Ikusi dugunez, 12-15en bat izan da usazaleen kopurua, aldaera haundirik gabe, azken bi mendetan.

Azken urteotan maiz entzun dugu, sarezko ehizaren heriotza urbil zegoela. Zer dela-ta? Zergati eta arrazoi nabarmenena, usazale eskasia. Adina

10. Lekturik.

dela-ta batzuk utzi egin behar. Eta nola aurkitu usazale gaztea, gehiena industrigintzan ari delarik, hilabete t'erdiko lanaldirako eta soldata finkorik gabe? Baina, ez da gaurkoa ixtorio hau. 1864. urtean egindako gutunean, ehizarako jendea aurkitzeko zailtasuna agertzen dio Arribillagak Gazteluri. Aintzinean, bertze urtetan ere gertatu zen hori. Orduko arrazoiak? Eskopetazko ehiztariekin zituzten aferak eta ehizaren eskasia.

Azken arrazoi hau, ehizaren ugaritasuna edo eskasia, garrantzi haundikoa izan da orain arte usazaleentzat. 1984 eta 1985. urtean gutxienezko sosa kantitatea segurtatu zien Etxalarko Udalak: ehun mila pezeta 1984. urtean eta ehunda hamar mila 1985.enean. 1986-1987.enean berriz, soldata finkoaren hitzarmen antzekoa sinatu dute usazaleek Gaztelurekin. Baina orain arte ez da horrela izan. Eta hauxe da taldearen antolaketa aldaldi berezi bat: biltzen zena banatzen zen, harrapatzen zen usoa edo haren balioa banatzen zen. Hara zergatik ehiza ugari edo urriaren garrantzia usazalearentzat.

Eta *nola banatzen zen ehiza edo honen balioa?* Banaketa horrek izan ditu bere aldaketak, guk ezagutzen dugun denboran. Eta guk azken bi mendeak ezagutzen ditugu. Hona hemen 1814.enetik 1826.erarteko urteetan egingen zuten banaketa:

29 usotako multzo bakoitzetik	
-sare bakoitzarentzat (lau sare)	4 uso
-trepagabeko nagusikoarentzat	2 uso
-Aritzeko trepakoarentzat	2 uso
-Trepabigelekoarentzat	2 uso
- Domiko abatariarentzat	2 uso
-Belateko abatariarentzat	uso 1
- Idoiagako abatariarentzat	uso 1
- Arriko abatariarentzat	uso 1
-bertze trepakoarentzat	uso 1
-Larreko abatariarentzat	uso 1
guztira	29

1845. urtean, trepa nagusikoari 29 usotatik uso bat gehiago eman zitzaion: 3. Handik urte batzutura, 1863.enean, aldakuntza ageri da. Ordu-rako, Arribillaga eta Gaztelu Sara-ren sareak bere gain hartzen hasiak ziren, hango Udalarari dirutan ordainduz: urte horretan xeheki 54 franko. Diru hau denen artean, nagusi eta usazaleen artean ordaintzen zuten. Eta bildutakoa banatu, honela banatu zuten urte horretan eta ondokoetan:

12 usotatik,

-Iguzkierreak	1
-Gazteluk	1
-sareetakoek (lau)	1 (bakoitzak)
-trepetakoek (lau)	1 (bakoitzak)
-Aritzeko, Belateko, Idoiko eta Larreko abatariek	uso

erdia bakoitzak. Lau dozena baino gehiago harrapatuz gero, trepa nagusikoak eta bigarren trepakoak uso bana gehiago hartzen zuten. 1814-26koarekin gonparatuz, aldaera nabarrena, behar bada, nagusiak trepa eta sareetako usazaleekin berdintzea da.

1869.ean, Fortuna sare berria paratu zuten, eta sare lanerako bertze usazale bat hartu. Baina honek uso erdirako eskubide zuen, sare zaharretakoek osorako zutelarik.

1906 eta 1907.ean, banaketa honela egin zen:

–sare bakoitzak	uso bat
–sareetako bakoitzak	uso bat
–trepetako bakoitzak	uso bat
–bertze zazpi «mutikoek»	uso erdia

Bosgarren sarearena, Fortunaren kontua bereiz erramaten zuten. Horretan harrapatutakoa, hirutan zatitzen zen: zati bat hiru nagusientzat, eta bertze biak usazaleentzat. Ehizak lau dozena gainditzen zituenean, trepa nagusikoak eta bigarren trepakoak uso bana gehiago zuten saritzat. Sarari ordaindu behar zitzaion errenta ornitzeko, usazale bakoitzak 115 pezeta eman behar zituen.

Banaketa aldetik ez da aldaera gehiagorik izan azken urteak arte. 1960. urtera arte, sareetakoek eta trepetakoek «parte osoa» hartuz jarraitu dute, eta gainerakoek, «parte erdia». 1960.etik, batzuek «parte osoa» eta besteak %ko 85a hartzen hasi ziren. Eta 1970.ez geroztik, usazale guztiei berdinduta ordaindu zaie.

Arautegia

Dakigunez, hemeretzigarren mendeko bigarren erdialdian eta gaurko mende honetan, nagusi eta usazaleen arteko akordiozko arautegia egiten zen eta sinatzen. Horretan azaltzen ziren usazalearen eginbeharrak eta sari neurriak. 1906 eta 1907ko arautegia Benigno Aznar, nagusien ordezkariak, eta usazaleek sinatua da. Aunitz urtez berdintsu izanen baitzen, eredutako¹² interesgarri gerta daiteke 1906.eko kontratu hori. Ikus dezagun.

«Etxalarren, Usategietako etxolan, 1906ko irailaren 27an, ondoko hauek biltzen dira:

Joakin Arribillaga eta Gazteluren alargun Maria Clara Maritorenaren izenean, Benigno Aznar Gerendiain, alde batetik; eta bertzetik Frantisko Iturria, Eugenio Iturria, Jose Agustin Zubieta, Leon Irigoien, Felipe Iparra-girre, Agustin Mariskirena, Jose Martin Zubieta, Fermin Sanberro, Lino Agirre, Antonio Indaburu, Prudentzio Sanzberro, Jose Juan Berrueta, Ildefonso Iturria, Pedro Zubieta eta Jose Maria Iturria, Etxalarko herritar eta usategietako langile edo usazaleak, eta hauxe adierazten dute: urte honetako sasoiari, uso eta txoloma ehizako lanak ahal den zuzenen egiteko, denentzat probetxugarri gerta dadin, ondoko baldintzak adostasun osoz onartzen dituzte:

1. Bihar ehiza hasteko, aipatutako usazaleek behar diren prestakuntzak egin beharko dituzte.
2. Usategietako zer lekutan eta zer lanetan usazaleak ariko diren, nagusien ordezkariak hautsiko du.

11. Jaso.

12. Modelotako.

3. Usazale guztiak goizetan bere ordurako etorriko dira, bakoitza bere lanpostura, eta bertan egon behar dute ilundu arte, edota Trepa nagusikoak agindu arte. Etorri gabe gelditzea, behar bezala justifikatu gabe, hutsegite larritzat hartuko da.

4. Usazaleek debekatua daukate mozkortzea ehiza denboran eta usategian daudenean. Hori ere huts larritzat hartuko da.

5. Lan guztietan elkarri lagundu behar diote usazaleek, batasunean jokatuz, eta nagusien ordezkariaren eta trepa nagusikoaren errana behar dute egin.

6. Sareetako usazaleek, ongi egin behar dituzte sareak eta arretaz zaitu, busti eta hautsi ez daitezen saiatur, eta sare lekua beti garbia edukiz. Beren esku daude behar diren isatsak.

7. Berauek saiatu behar dute, ehiza ikusten dagoen jendea, gordeleketan ezkuta dadin, trepa nagusikoak edo Aritzekoak ohizko abisua eman bezain agudo; edota euri beharrezko iduritzen bazaie.

8. Ezin du inork bere lana utzi, ehiza denboraldia bukatu arte, eta hori nagusien ordezkariak finkatuko du. Norbaitek utziko balu, ehizaren irabazitik hartzeko duen parte galduko du.

9. Hiru egun baino luzeago eri egonez gero, ordezkoa berak paratu behar du, baina zuzendariaren gogoko dena.

10. Gauero etxolan geldituko da, parte osoa hartzen dutenetako bat eta parte erdia hartzen dutenetako bertze bat, guziaz ardura daitezen; eta egin-kizun hori denek behar dute bete, txandatur.

11. Irabazia ez da banatuko, ehiza akautu arte.

12. Ehiztari edo usazale bakoitzak 115 pezeta ordaindu behar ditu, Sarako usategien maisterrei errenta pagatzeko.

13. (banaketa nola egingen den. Lehen erran dugu: ikus orrialdean).

14. (gauza bera).

15. Zuzendari edo nagusien ordezkariak, usazaleek bere gain hartutako eginbeharrak bete ditzatela begiratu du, eta badauka huts eginak zigortzeko eskubidea.

(denen sinadurak)

1867.eko arautegian, besteen artean, obligazio hau daukate usazaleek: besta egunetan etxolara joatekoa lo egitera, karrika aldean gelditu gabe.

EHIZAREN KOPURUA. SALMENTA NEURRI ETA TOKIAK

Dirudienez, azken bi mendeetan ehizak gora-behera frango izan du, kopuruari¹³ dagokionez. Paperetan zenbait baieztagarri agertzen zaizkigu.

1828.ean, 160 dozena eta hiru uso harrapatu zituzten. Ondoko urtean, 1829.ean, hau esaten dio Frantzisko Jabier Berruetak Florenzio Sanz idazleari: «ehiza ttikitu egin da azken hogeita hamabost urteetan; uso eta txoloma kopurua 220 eta 240 dozena artean dabil, banaz bertze».

13. Kantitateari.

Gerora kopuru horrek beherakada haundiagoa egin du. Hemeretzigarren mendearen azkenaldian, berriz goratu egin da. Baina ikus ditzagun xehetasun batzuk.

1842. urtean, 75 dozena uso harrapatu zituzten, eta 13,5 dozena txoloma. Denetara: 88,5 dozena.

1849.ean, F.J. Berruetak Sarako Dithurbide jaunari, urte hauetan uso gutti pasatzen eta harrapatzen dela, dio. Gastuak irabaziaz baino haundiagoak dira. Eta gaineratzen du: Gazteluk eta nik nahikoa egiten dugu, Usategi honen izena zaitzea eta lagun eta senideei oparitzea. Eta Dithurbidek F.J. Berruetari: «gastuek irabazia gaingitzen dute. Ohituragatik eta abertzaletasunagatik jarraitzen dugu. Irabazi haundiena, uso biziaren salmentak dakarkigu».

1850.ean, 47 dozena harrapatu zituzten; eguraldia hagitz txarra egin omen zuen. 1852.ean, 150 dozena. 1854ean, 76; 1855ean, 64; 1856an, 66; 1859an, 66; 1863an, 76 dozena t'erdi; 1864ean, usazalek ezin bilduz ibili zen Arribillaga. Arrazoa: aintzineko urteetako chizaren eskasia. Urte horretan, 140 dozena izan ziren bilduak. 1865ean, azaroaren zortzirako bazeuzkaten 167, eta hori eguraldi txarra egin zuelarik: hego haizea eta euria.

1866.etik 1913.era arteko usoen zerrenda Joakin Arribillagak argitaratu zuen. Hauxe dugu:

urtea	usoak	txolomak	guztira
1866	198 dozena	59 dozena	257 dozena
1867	96 »	45 »	141 »
1868	176 »	72 »	248 »
1869	187 »	108 »	295 »
1870	180 »	67 »	247 »
1871	174 »	94 »	268 »
1872	133 »	34 »	167 »
1873	170 »	74 »	244 »
1874	98 »	107 »	205 »
1875	103 »	58 »	161 »
1876	200 »	138 »	338 »
1877	126 »	61 »	187 »
1878	197 »	94 »	291 »
1879	146 »	55 »	201 »
1880	176 »	85 »	261 »
1881	205 »	29 »	234 »
1882	86 »	38 »	124 »
1883	125 »	32 »	157 »
1884	191 »	29 »	220 »
1885	109 »	51 »	160 »
1886	114 »	51 »	165 »
1887	207 »	82 »	289 »
1888	262 »	74 »	336 »
1889	257 »	45 »	302 »
1890	256 »	98 »	354 »
1891	334 »	89 »	423 »
1892	163 »	55 »	217 »

ETXALARKO USATEGIAK

urtea	usoak	txolomak	guztira
1893	341 »	84 »	425 »
1894	377 »	69 »	446 »
1895	320 »	71 »	391 »
1896	153 »	42 »	350 »
1897	190 »	52 »	242 »
1898	206 »	52 »	258 »
1899	224 »	66 »	290 »
1900	248 »	90 »	238 »
1901	277 »	40 »	317 »
1902	183 »	31 »	214 »
1903	179 »	39 »	218 »
1904	202 »	62 »	264 »
1905	273 »	70 »	343 »
1906	284 »	95 »	379 »
1907	351 »	49 »	400 »
1908	253 »	113 »	366 »
1909	283 »	97 »	380 »
1910	188 »	71 »	259 »
1911	174 »	120 »	294 »
1912	253 »	49 »	302 »
1913	166 »	53 »	219 »

«Uso harrapatuen kopurua aunitz goratu da azken urte hauetan», dio Gazteluk 187leko gutun batean. Eta Arribillagak ere hala aitortzen du. 250-270 dozena inguruko ehiza izandu zen. Eta gerora gorakada nabaria egin zuen: 1893an 446 dozena; eta 400a iritxiak edo urbilduak, urte gehiago ere izan ziren. Zergatik ehizaren gorakada hori? Arribillagaren ustez, «sareak hobeak direlako eta usazaleak gehiago saiutzen direlako».

Nolanahi den, ehiza ugaritzen joan da mende honetan. Pedro Arribillagak 1930ean kazetari bati erranaren arabera, urte hartan bostehunen bat dozenata iristea espero zuen. Aintzinako urtean 600 izan ziren. Hark ordurarte ezagututako urterik onena, 1918.a izan omen zen: 1.000 dozena. «Mila bederatzirehunda hemezortziko azaroaren 11n, Europako gerratearen geldiera sinatu zen egunean preziskis, 84 dozena harrapatu genituen. Gure ataxi-amatxiek ere ez dute gogoan horrelako egunik».

Baina emaitza horiek ere hobetu dira gero. 1933.urtetik 1955.era arte, mila dozena eta gehiagoko urte aunitz izan zen: 1400, 1500, 1600 dozenatako urteak. Mila bederatzirehunda berrogei eta bateko goardia zibilaren ageri batek, 1000 dozena hartuak adierazten du. 1950.ean, arratsalde batez, 200 dozena sartu ziren sareetan.

Geroztik, ehiza urritzen eta tikitzen joan da. Gaur ez dira urbiltzen zenbaki horietara, ezta ametsetan ere. Hirurehun dozenatako urtea, urte ontzat hartzen da, eta bai guttiagokoa ere. «Etxalaren igarotzen diren usoe-tatik, milako bat ere ez da sartzen sareetan Horrela zioen Nafarroako Ehiza Federakuntzak, «egin diren ikerketen ondorioz».

Hara azken urteetan ehizatutako uso zerrenda, Bautista Iparragirrek egi-
na:

urtea	usoak	txolomak	guztira
1961	119 dozena	45 dozena	164 dozena
1962	295 »	37 »	332 »
1963	167 »	32 »	189 »
1964	137 »	31 »	168 »
1965	157 »	42 »	199 »
1966	205 »	61 »	266 »
1967	199 »	22 »	221 »
1968	149 »	25 »	174 »
1969	267 »	11 »	278 »
1970	331 »	18 »	349 »
1971	114 »	5 »	119 »
1972	197 »	10 »	207 »
1973	238 »	9 »	247 »
1974	194 »	12 »	206 »
1975	233 »	16 »	249 »
1976	99 »	11 »	110 »
1977	124 »	7 »	131 »
1978	118 »	13 »	131 »
1979	100 »	21 »	121 »
1980	71 »	9 »	80 »
1981	130 »	30 »	160 »
1982	40 »	20 »	60 »
1983	93 »	18 »	111 »
1984			145 »

Nora eta zenbatetan saltzen da usoa?

Lapurdin bertan, eta Saran bereziki, saldu da gehien bat Etxalarko usoa. 1873an, 241 dozenetatik 182 Sarara saldu ziren. Hemeretzigarren mende horretan, Donostiako Real Sport Club-ek Etxalarko sareetan harrapatutako tortoila eta txolometatik eramaten zituen, tirozaleentzako entretenigarri. Eta bertze lekutara ere, bai, noski. Pedro Arribillagak 1930ean dioenez, «usoak aunitz hiriburutara bidaltzen ditugu». Lehen, usategietan bertan, sareetako usoa bota eta tirokatuz aritzen ziren ehizturiak.

Usoaren salneurria? Ohar bat kontutan eduki behar da: usoak bizirik saltzen dira batzuk, gehienak hilik. Ehizerako, bertze usoen erakargarri, biziak; janaritako bertzeak. Eta prezio ezberdinez saltzen dira. Denboraren barrena sosaren balioa ere aldakorra da, noski, eta salneurria arabera. 1852. urtean, 14 erreal vellon balio zuen uso pareak. 1920.ean, uso bizia 7 pezetatan saldu zen. Saran 20 frankotan ari ziren saltzen urte berean. Uso hilak, dozenak 20 pezeta balio zuten, eta txoloma dozenak 16 pezeta. Hauek Sarako Mailuku Bordan paratuak. 1978an, uso bizi bakoitza 1500 pezetatan saldu zen eta hila 275etan. 1984.ean, bizia 3.300 ptatan eta hila 800 etan. Hurrengo urtean, 1985an, biziaren salneurria 3500 pta. zen eta 900 hilarena.

Ttortoilak eta oilagorra

Etxalarko usategietan usoa harrapatu da bereziki. Baina, eta lehen ere erran dugunez, ttortoilak ehiza ere egiten zen sarek; zulo ttikiagoko sarek, eta haratago, Sarako dermio barrenean, muga ondo-ondoan. Honek ekartzen zuen preziskia istilu frango, gero ikusiko dugun bezala. Eta oilagorra ere ehizatzen zen, nahiz kopuru ttikian, arabera. Baina ttortoilak ehiza aski ugaria zen. Abuztuaren 15etik irailaren 29ra, hau da, Andre Mari egunetik San Migel egunera arte luzatzen zen ehiza hori; uso ehiza egun horretan hasten baitzen.

1829ko F.J. Berruetaren gutunean ageri da: «urte batzuz 60 dozena ttortoilak harrapatu dira». Beranduago, mendearen azken aldera eta mende honen lehen urtetan, ttortoilak ehiza usoarena baino haundiagoa izan zen batzutan: 150, 200 dozena eta gehiago ere, gorabehera haundirekin. 1897. urtea gertatu zen txapeldun, 337 dozena harrapatuz.

Hau da Joakin Arribillagak utzi digun ttortoilak ehizaren zerrenda:

urtea	ttortoilak	urtea	ttortoilak
1866	180 dozena	1890	35 dozena
1867	208 »	1891	117 »
1868	160 »	1892	186 »
1869	190 »	1893	183 »
1870	240 »	1894	73 »
1871	110 »	1895	47 »
1872	150 »	1896	155 »
1873	270 »	1897	337 »
1874	116 »	1898	164 »
1875	160 »	1899	143 »
1876	81 »	1900	105 »
1877	172 »	1901	300 »
1878	174 »	1902	200 »
1879	67 »	1903	129 »
1880	275 »	1904	183 »
1881	326 »	1905	240 »
1882	97 »	1906	100 »
1883	81 »	1907	102 »
1884	»	1908	157 »
1885	113 »	1909	80 »
1886	136 »	1910	58 »
1887	118 »	1911	240 »
1888	45 »	1912	240 »
1889	106 »	1913	154 »

Salmentari dagokionez, usoaren antzera ttortoilak ere Sara aldera eramaten zuten gehiena. 1923an, dozena 13 pezeta ordaintzen zuten Saran. (txoloma, 16 pta.). 1925.etik honat ez da ttortoilak ehizarik sarek egiten; eskopetak bakarrik.

Aipatutako F.J. Berruetaren gutunak oilagor ehizak ere berri ematen digu: «oilagorrek ere harrapatzen dira sare haunditan, uso denboraldian,

eguna argitzean eta ilunabarrean. Egun batzuz hamalau oilagorra hartu dituzte». Baina ez da aunitz agertzen paperetan egazti honen ehiza. Ez ote zen urtero egiten? Edota, garrantzi ttikiago zuelako? 1873.ean, azaroaren hamalauera arte ez zen hogeit hamar bertzetik sareetan sartu. Gaur ez da sarek egiten ehiza hori.

HERRIA ETA USATEGIAK

Ez dut berri gehiegirik aurkitu, Herriak, eta bereziki Udalbatzak, usategiei buruz eduki zuen jarreraz¹⁴; edota usategien nagusi eta usazaleekin izan dituen harremanez. Ez da harritzekoa, pentsa lezake edonork, usategiak ez baitira Herriarenak, herriko batzurenak baizik, eta Herriak ez zeukan esku-biderik ehiza horretan esku hartzeko. Azken berrogeita hamabortz urtez bai, bada informazioa, tirozko ehizaren antolaketa Herriak bere gain hartu zuenetik. Azken urteetan, gero eta gehiago sartu da sareko ehizan ere, Saratarrei ordaintzen diena ere, gaur egun, Herria baita. Dena den, arrazoi batengatik edo bertzerengatik, herrian gertatutakoaren eta Herriak zerikusia izan zuen gertatutakoen berririk ez da ageri Herriko Etxeko liburuetan. Horregatik diot datuz urri gabiltzala.

Iguzkiagerreko paperetan ageri denaren arabera, eta azken berrogeita hamabortz urteak salbu, 19. eta 20. mendeetan ez da harreman gehiegirik izandu, ez eta afer aunitzik ere, Usategietako nagusien eta Udalaren artean. Polizia edo karabinerukin, edota ehizturiekin gertatutako istiluetan, Udalak usazaleen alde jokatu du ia beti. 1884ean alkateak ehiza geldierazi egin zuen, eta Lesakako goardia zibilak etorri ziren sareak kentzera. Joakin Arribillagak bere eskubideen berri eman ondoren, berehala itzuli egin ziren. Arribillagak honela irazkin¹⁵ du: «herri honetako batzuk gaizki nahi gaituzte». Norbaitzuren salaketa izandu ote zen? Hala dirudi. Gobernari zibilak 1882an emandako idazkia gogoratzen du Gazteluk, zeinak Gazteluk eta Arribillagak daukaten eskubidea ezagutzen eta aitortzen baitu, Iarmendin ehiza egiten jarraitzeko daukaten eskubidea, alegia. Zirikatzaileei auzitegitara eramateaz amenazo egin zien Gazteluk.

Gertaera berezizat jo genezakeena, 1836koa da. Abuztuaren 28an egindako Etxalarko herritarren Batzarre nagusian, Usategiez jabetzea erabaki zuten, beren eskubide, lur eta zuhaitz guztiekin. Juan Luis de Endara-k, Gazteluren izenean, eta Franzisko Jabier Berruetak Udalbatzari egindako idazkian, beren protesta agertu zuten eta akordioa gaitzetsi. F. Jabier Berruetaren aitak, Fermin Berruetak, alkateari igorritako bertze idazkian, usazale batzuk mehatxatuak¹⁶ izan zirela salatu zuen. «Ados ez dagoenak auzitegitara jo dezala, dio eta auzitegiak erabaki arte, Udalbatzak nahi duen lekuan utziko dituztela usoak. Urriaren 2a zen. Eta egun horretan preziski eman zuen argitara Udalbatzak oharra, «Usategietako ehiza eskubideaz» auzitegitara jo zuela, eta horrek hautsi arte, usoak bertze norbaitek jasoko zituela. Ohar horretan 1740. eta 1764.eko erabakiak aipatzen ditu, baina ez

14. Jokaeraz.

15. Komentatzen.

16. Amenazatuak.

du haien edukia azaltzen, ez eta argibide gehiagorik ematen. Ba ote zen lehendik ere, eta usategiei buruz, Herria eta nagusien arteko nolabaiteko eztabaida? Horrelako zerbaiten itxura dauka oharreko aipamen horrek, baina ez gara oraingoz gai, beraren ziurtatzeko. Nolanahi den, daitekeena da Herriak eskubiderik bazuelako jakitate edo ustea, herritar batzuren artean hedatua egotea. Erranahi hori izan lezake, agian, L. Juzan Dominique-k 18. mendean, Etxalarrera egindako ikustaldiaren ondotik idatzi zuenak: «Etxalarko biztanleek, bertako bi auzotarrei utzi zieten aintzinan eurek bakarrik ehizatzeo eskubidea. Eman baldiogabetu nahi izan zuten gero, baina alferrik».

Lehen karlista gerratea zen, eta Fermin Berrueta eta Fermin Gaztelu Iparraldean zeuden, ihesi joanak, Saran bat eta Baionan bertzea. Lurralde honetan karlista zen nagusi, eta eurek liberalak ziren. Berruetak Gazteluri egindako gutunean, eta herritarren Batzarreaz, bakar batzuren gauza dela esan dio, eta buruak medikua eta bertze bi direla. Dena den, urte horretan ezin izan zuten Berruetak eta Gazteluk usoak bereganatu. Eta ez dakigu bertzerik. Kondatutako guztia Iguzkiagerreko paperetan ikusi dut, eta Herriko Etxeko liburuetan ez dut inolako aipamenik aurkitu, ez Batzarrearen Akta Liburuan, ez bertzetan. Nolanahi den, badirudi ez ziotela Herriari arrazoia eman; Iguzkiagerrea eta Gaztelua baitira agertzen direnak gero ere, sare ehizaren nagusi.

1827.eko abuztuaren 27an, ttortoila ehiza hasia zen. Eta Berrueta kezkatu agertzen da: «ez dakit zatiren bat emango diguten». Zergatik dio hori? Udala ote zen ttortoila ehiza antolatu zuena? Eta zergatik, hala izan balitz? Mende honen erdira arteraino ez baitu Udalak parte hartu, dakigunez, ttortoila ehizan. Berruetak ez digu xehetasunik argitzen.

1865. urtean, Victoriano Arribillagak albiste ¹⁷ hau igorri zion Gazteluri: Faustino Elizalde, bertako apezka, eta bertze batzuk usategiak finkatu dituzte Baztan eta Etxalar arteko mugan, eta datorren urterako ehiza onaren esperantza daukate. Ez dakigu ehiza ona egin zuten ala ez, usategi horren azalpenik ez da inon gehiago ageri.

1932an, Udalaren Usategietan esku hartzea haunditu egin zen hobeki esanez, urte horretan hasi zen Udalaren parte hartzea nabarmena izaten. Ordurarte Usategien nagusien esku zegoen eskopetazko ehiza, Udalak eskuratu zuen. Zer dela-ta gertatu zen hori? Eskopetazko ehiztaria, gero eta ugariagoa eta gero eta ausartagoa bilakatzen ¹⁸ ari zen; eta usazaleekiko harremanak orduan eta gogorragoak. Leontzio eta Pedro Arribillagak diotenez, urtero bazen zaurituren bat. «Usategiak» Elkarteak beldurtu zuen, eta pentsatzen hasi ez ote zen utzi egin beharko sareko ehiza. Erabakia larria zen. Hainbertze urtetako aitzinatea zuen gauza, hain bitxia zena, bertze aldetik, ia inon ikusten ahal ez dena; urtetan eta mendetan barrena erabili eta defendatutako eskubidea eta ohitura; hori dena galtzea ez zen txantxetako gauza, edota arinki erabakitzekoa. Herriarentzat ere garrantzizkoa zela kontsideratuz, Herriko Udaltzaren gaitasuna jo zuten laguntza eske.

Udaltzak, 1932ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Usategiak desagertzea ez zela gomeni ikusi zuen. «Horiek eman diote Etxalar Herriari

17. Berri.

18. Bihurtzen.

entzuna eta ezaguna izatea, kanpoko jendea erakartzen dute, familia aunitzentzat eta herriarentzat mesedegarri dira» (Bilkura Aktako hitzak). Horregatik, eta Usategietako aferari konponbidea aurkitu nahiz, Joxe Elizagoien alkatea eta idazkaria Gobernari zibilarengana joan zitezela erabaki zuen Udalbatzak. Zinez hartu zuen Manuel Andres gobernariak aferara, zeren eta ondoko urrian Usategietan egun bat igarotzera gonbidatu zuten, «usategien soluziobidean eman zuen laguntzagatik». Harekin batera, eta arrazoi beragatik, Blas Marin, Baztango alkateari ere gonbidapena luzatu zioten.

Udalbatza, «Usategiak» Elkartea eta ehizturiak elkarrekin hizketatuz, eta Iruñeko laguntzaz, arautegi bat burut zuten. «Ehizarako Debekatutako Lurralderako Oinarriak» izenez, Nafarroako Boletin ofizialean argitaratu zen 1932. urtean. Horren arauera, Udalarri dagokio eskopetazko ehizaren antolamenduaz arduratzea, ehizturi eta usazaleen eskubideak eta harremanak bideratzea. Ehizturiaren postuak berak erabakiko ditu, eta bai berauen zozketa egin ere. Arautegiaren edukia, bere osotasunean, 7. atalean, «Eskopetazko ehizturiak» izenekoan aurkituko duzu.

1941ean argitaratutako arautegian, zenbait aldaketa nabari da. Adostasunik eza eta konpontezinak ekarritako egoeratan alkateak zeukan hausteko eskubidea, desagertua gelditu da. Gainerakoa berdintsu. 1942an Estatuko «Mendi, Ehiza eta Arrantzatarako» zuzendariaren Erabakia etorri zen Udaletxera: ondoko urtean, eta ehiza lege berria plazaratu bitartean, irailaren 20tik azaroaren 25era arteko denboraldian, bi ehiza motak txandatu egingo dira; astearte, asteazken, ortzegun eta ortziraletan sarezkoa bakarrik egingo da, eta larunbat, igande eta astelehenetan eskopetazkoa bakarrik. Adostasun eza agertzeko akordioa hartu zuen Udalbatzak, erabakia herriarentzat nahiz ehiztariarentzat ere kaltegarri zela adieraziz.

1932. urtean hasitako ehizerako zozketaren diru sarreraren berri azaltzen da Udaletxeko liburuetan.

urtea	bildutako dirua	gastua
1932	2.448 pta.	1.128 + goarda soldata
1933	2.507	
1934	1.803	
1935	1.571	
1940	578 (irabazi garbia)	
1941	1.128	
1942	1.555	
1943	3.11,50 (irab. garbia)	
1945	1.380	
1946	1.570	
1947	4.860	
1948	4.860	

Badirudi ehizaren zozketako irabazia Etxalarko ospitalerako izaten zela; urte batzuetako ageriak badaude behinik behin. Urte ona zela-ta, «Usategiak Elkartea» ere bere saria eskaintzen zion ospitaleari.

1949.ean, «Veintena»ko Batzarreak enkantean¹⁹ egitea erabaki zuen,

19. Subasta.

postuen zozketa ordez. «Usategiak» elkartekoez protestatu zuten, enkan-teak ez zuela 1932ko arautegia errespetatzen eta. Udalarri ehiza postuak utzi bazizkioten, usategiak zaintzearen alde utzi zizkiotela, etabar. Elkarren arteko konponketa eskatu zuten. Joan-etorri ugariak eginagatik, Udalbatzak ez zuen amore eman.

Herriarentzat enkantea onuragarria²⁰ gertatu zen. Begira 1949. urtetik nabari den diru emaitzaren hobekuntza, enkantearen bidez gertatu dena.

1949 - 24.500 pta.	1969 -
1950 - 30.141 pta.	1970 -
1951 - 32.125 pta.	1970 -
1952 - 27.291 pta.	1971 - 154.100 pta.
1953 - 42.340 pta.	1972 - 254.652 pta.
1954 - 33.700 pta.	1973 - 315.216 pta.
1955 - 45.633 pta.	1974 -
1956 - 40.000 pta.	1975 -
1957 - 60.183 pta.	1976 -
1958 - 52.975 pta.	1977 - 553.000 pta.
1959 - 76.941 pta.	1978 -
1960 - 107.724 pta.	1979 -
1961 - 150.511 pta.	1980 - 650.000 pta.
1962 - 68.600 pta.	1981 - 719.000 pta.
1963 - 193.868 pta.	1982 - 1.277.663 pta.
1964 - 80.449 pta.	1983 - 874.833 pta.
1965 - 69.150 pta.	1984 - 1.285.088 pta.
1966 - 90.551 pta.	1985 - 2.576.417 pta.
1967 -	1986 - 2.378.765 pta.
1968 -	1987 - 1.777.000 pta.

Dirutza honetatik ordaintzen ditu Herriak ehizarako egiten diren prestatketak, goardaren soldata, etabar. Ehizturiak, bere aldetik, pagamanta horri Foru Diputazioak kentzen duen zerga gaineratu behar dio.

ETXALAR ETA SARA: BI HERRIEN ARTEKO HARREMANAK

Etxalarko usategiez ari garelarik, atal²¹ berezia eman behar zaio Sararekiko harremanari. Nola ahortzi, izan ere, sareaz aparteko tresneria eta lanbide gehiena Sara-ko dermioan egiten dela? Sareez egindako ehizan, ehiza horren salmentan, etabar, nahiz Etxalartarrek nahiz Saratarrek, biek zeukaten zerikusia. Horregatik bi herriek, edo herritakoek, elkarrekin konpondu beharraren nahitaezkoa daukate, Usategietan ehiza eginen bada. Baina bi herri dira, bi estatutan kokatuak²² eta estatu arteko ohi diren mugaz bereziak; bi jende talde dira, eritzi ezberdinak, eta interes ekonomikoak ere tartekatzen dira. Harritzeko da elkarren artean aferak sortzea eta gatazkak?

20. Probetxugarria.

21. Zati.

22. Lekutuak.

Oro har, hala ere, bi herrien arteko harremanen giroa eta maila ona izandu dela baieztu dezakegu, ezagutzen dugunez.

Usategietan, lehen, lau sare paratzen ziren. Hauetatik bi Etxalartarrenak ziren (2. atalean ikusi dugu), eta Saratarrenak bertze biak. Harrapatzen zen usoa erdibana egiten zen, Etxalarko eta Sarakoen artean. 1825. urtean horrela dela adierazten dio F. Jabier Berruetak Elizondoko polizia buruari.

Ezagutzen ditugu, bi alderdiek, Saratarren ordezkariak eta Berruetak eta Gazteluk, 1826an hartutako akordioak. Horretarako, ohituraren arabera, Nabarlasan bildu ziren, bi herrien muga-lekuan. Akordioak hauek izan ziren:

«1. Harrapatutako usoak erdi bana banatuko dira, Etxalarko eta Sarakoen artean, orain arte egin den bezala.

«2. Hamabi lanpostuetatik, borts Saratarrentzat izanen dira, eta zazpi Etxalartarentzat, aintzinako hitzarmenean²³ bezala.

«3. Sarako lanpostuak hauek izango dira: beren bi sareetakoak, trepa bigelekoa, eta Domiko eta Arriko abatariak.

«4. Etxalarko lanpostuak berriz, beren bi sareetakoak, trepa nagusikoa, Aritzeko trepakoa, eta Belate, Idoiaga eta Larreko abatariak. Eta akordio hauek, aintzinako urtetakoak bezalakoak dira.

Saratarrak, 19. mendearen lehen urteetan hasi ziren beren sareak etxalartarren esku uzten, errenta kobratuz beraiengatik. Eta horrek berekin zerman elkarriketatu eta negoziatu beharra; nolako eta zenbateko ordaina eman Sarakoei, sareen eskubideengatik. Gehienetan, dirua izan da ordainbidea, nahiz usoak ere izan batzutan, eta baita salmentaren baldintzak, edota ehizaren moldea. 1833an eta 1834 ean Nabarlasako bilgurara saratarrek ekarritako idazkian, ehizturi elkartearen izenean, hara zer proposamen egin zuten: «Etxalarkoek mugaz harantz eta Sarakoek mugaz honantz *uso hegal luzeak* saltzea debekatua gelditzen da, 5 ptaren zigorpean, uso bakoitzeko». Baina *uso hegal motzak* noranahi saltzeko libre nahi dute izan. «Uso hegal luzeak», uso biziak dira. Uso bizirik Sara aldera ez saltzea, hori da bilatzen dutena. Uso biziaren salmenta maiz aipatzen da geroago ere, eta beti Iparraldera saltzea ekidin²⁴ nahiz. Kejati agertzen da F.J. Berrueta 1852.ean, saratarrek uzten ez dietelako uso biziak harantz saltzen, «gure eskubideen kontra».

1877.ean, Sarakoei 24 dozena uso eman zitzaizkien. Hori zen haien urteko ordaina. Geroxeago 20 dozena ere izan zen pagabeharra. Urte batzuz dirua nahiago zuten, bertze batzuz usoak. Gehienetan sosa izan da ordainbidea. Sosa kopurua aldatuz joan da, eta edozeinentzat ulergarri da; sosaren balioa hain aldakorra da, nahiz aldakortasuna ez izan beti berdina. Eta ehizaren kopuruak ere izan du ikustekorik ordain neurriarekin.

1833an, 130 pezeta eskatu zuten Saratarrek, erdia urrian ordaintzeko eta azaroaren 6an bertze erdia. F.J. Berruetari garesti iduritu zitzaion. 1851n eta ondoko hamaborts urtetan, behinik behin, 54 franko ordaindu zitzaizkien. 1876an jaso egin zuten errenta saratarrek: 60 franko. Aunitz zelakoan, Victoriano Arribillagak bere sareak eskaini zizkien Saratarrei, beraiei 60 pezeta

23. Akordioan.

24. Ebitatu.

eskatuz, baina ez zuten onartu. Azkenean Arribillagak hamar urtetarako kontratua burutu zuen, 60 franko emanez urte bakoitzeko, eta bertze bi baldintzez: ezin zituen Lapurdira uso biziak saldu; eta Saratarrek, beren salmenta bezeroei ²⁵ hornitzeko, Etxalarko usoak erosterakoan lehentasuna izanen zuten. Arribillagak bere haserrea agertu zuen: «Sarakoan helburua usategi hauek deuseztatzea da, gero eta obligazio gogorragoz lotuz». Urte horietan, Victoriano Arribillagaren eskuetan zeuden sare guztiak, eta bera zen Sarakoei nahiz Gazteluri eta Bibiana Hualde, bere izebari, errenta pagatzen ziena. 1887an 150 pezeta zen urteko saria.

1904. urtean bada aldaerarik, Sarako Usategi Elkarteak, Etxalarko Joakin Arribillagari proposamen hau egin zion:

«Arribillagak, San Migel egunetik Azaroaren 30era arte, ehizarako esku-bidea du, urteko 400 franko ordainduz, eta baldintza hauekin: a) Sarako Elkarteak, ehiza uso itsuz eta tiroz egiteko baimena alogatzeko ²⁶ eskubidea izanen du, eta, xeheki, ehiza molde hori Zabalua eta Errepausua alderdian egin ahal izateko, arbol gainetan eraikitako bi txabolatan. Ehiza postuak hartzen dituztenek, 200 franko izanen dute ordaindu beharra Sarako Elkarteari. B) Lehen ehizaldia igarota, tirozko ehiza horrek Etxalarko uso ehiza oztopatzen duela uste badu Arribillagak, tirozko ehiza kendu egingo da; kasu horretan, errenta 600 frankotaraino iganen da urteko. C) Sarako Elkartearen eskubidea izanen da, ttortoila ehiza Sarako Abbadie jaunei alogatzea».

J. Arribillagak ez zuen onartu proposamena. Eztabaida eta gorabeheren ondoren, honako hitzarmen hau sinatu zuten hamazazpi urtetarako. Egia esan, hitzarmen honek 1904.etik 1938.era arte iraun zuen, 1921.ean berritu egin baitzuten. Honela dio hitzarmenak:

«1. Etxalarko Usategiek, aunitz urtez ttortoila eta uso ehizarako dituzten eskubideen arabera, erabiltzen duten Sarako herri eremua, errentaz utziko zaie Arribillaga eta Gazteluri, eta ehizarako bakarrik.

«2. Arribillaga eta Gaztelu, Sarako Elkarteari 500 franko ordaintzera konprometatzen dira, urtero azaroaren 20an, eta diru frantsesa emanez.

«3. Sarako Elkarteak, utzitako eremuan ehiza oztopa ez dadin begiratu duen hitza ematen du, abuztuaren 12tik azaroaren 20ra arte, nahiz ttortoila nahiz txoloma eta uso ehiza.

«5. Ezinbeste edo halabehar batek ehiza galeraziko balu, gerrateak adibidez, hitzarmen ²⁷ hau balio gabe geldituko da, zergatiak irauten duen bitartean.

«6. Arribillagak, uso biziak Frantziara ez saltzeko hitza ematen du, Sarako Usategi Elkarteari konpetentzia egin ez diezaion.

1945-1950 urteetan, 300.000 frankotaraino jaso zen errenta. (franko «zaharrak» noski).

Tirozko ehizaren antolamendua Etxalarko Udalak bere gain hartutakoan, eta ehizaren enkantean ²⁸ egiten hasi zenetik batez ere, Etxalar herriak

25. Eroستunei.

26. Errentan emateko.

27. Akordio.

28. Subasta.

eta Etxalarko Udalbatzak bere protagonismoa ²⁹ haunditu egin zuen. Eta protagonismoa Sara-rekiko harremanetan ere agertu da. Honen ageri nabaria dugu, 1958.ean sinatutako Sara eta Etxalarren arteko hitzarmena:

«3. Etxalarko «Usategiak» Elkarteak, a) Domiku eta Arritxuriko abata-riak kendu eginen ditu uso ehizaren denboraldiko ortzegun eta igandeetan; b) Berez Gaztainleporantz doazen bortz edo sei usotako multzo ttikiak joaten utzi; c) Ehizturi frantzesendako itsutarako usorik ez saldu, nahiz zuzenean erostera etorri nahiz bitartekoren bidez.

«4. Eskopetazko ehiza. Tirozko ehizarako, Lizarietatik Trepagibelera-ino postuak ehizturi espainolentzat izanen dira, eta Etxalarko Udalak era-ikiko ditu, berau baita onuraduna.

Trepagibleko postu horretatik Sara-ko Usategietaraino, ehiza postuak ehizturi frantzesentzat erreserbatuak daude, eta beraiek «Sarako-Ihiztariak» Elkarteak eraikiko ditu, postu horien onuradunak.

«5. Ehiza eskubideengatik finka dadin urteroko kanona, Etxalarko Usazale Elkartearen lehendakariak Sara herrian (Frantzian) ordainduko due-laren hitza ematen du, eta sarezko ehiza denboraldia bukatzean ordainduko duela. Kanon hori, lurren errentamenduari dagokiona da, eta urtero berriku-si ahal izango da, kontratugileren batek hala nahita, baina uso ehizarako denboraldiaren hastapenaren hiru hilabete alde aurretik gutxienik eskatuz.

«6. Errentamendu kontratu hau, 1958ko uso ehizaren denboraldirako da, eta urte bat gehiagotarako berritua bilakatuko ³⁰ da, bi egileen isilbidez-ko adostasunez. Aldatzekotan, uso ehizaren sei hilabete alde aurretikako errentamendu salaketa beharrezkoa izanen da.

«7. Edozein auzi larririk sortzerakoan, batzorde hau izanen da ardura-dun: Sarako alkatea, Sarako Usazale Elkartearen Lehendakaria, Sarako Ihiz-tarien Lehendakaria, Etxalarko Alkatea, Usazale Elkartearen Lehendakaria.

«8. Turista espainola nahiz frantzesak uso ehiza egintzak ikusi ahal ditzan, barne arautegia finkatuko dute, aipatutako batzordeko agintari es-painol eta frantziarren adostasunaz.

«9. Honetaz baimena ematen du Sarako Usazale Lehendakariak, abata-ri eta treparien postuak haien lurraldean koka ³¹ daitezen, uso ehizarako berekin daramazkiten eskubideekin.

Agiri hau onartu dute:

Sarako Alkateak

Etxalarko Alkateak

Sarako Usazale Elkartearen Lehendakariak

Etxalarko Usazaleen Lehendaka-riak

Sarako Ihiztarien Lehendakariak

Ondoko urteetan iraun zuen akordio honek, zenbait aldaera ttiki salbu.

Hitzarmen honetako berezitasun nabarmenena, usazaleen ehiza lekua ttikitzea da, Sarak Gaztainlepo beretzat erreserbatuz, nahiz ez egunero; horrela tirozale saratarrek atsegin osoz ehizatzen ahal dute.

1964ean, Sara-ko Udalbatzaren izenean P. Dutournier eta Delpesch, Etxalarko Udalbatzarenean J.M. Zubieta eta F. Telletxea, eta Usazale Elkar-

29. Parte hartzea.

30. Geldituko.

31. Paratu.

te osoa bildu ziren. Ongi begiratu ondotik, eta «borondaterik onena denek agertuz, mugakide diren bi herrien arteko harreman on eta baketsuak kalteku ez daitezzen, eta Usategietako barrutiko ehiza galdu ez dadin», hau erabaki dute:

1.—Usazaleek 200 dozena baino guttiago harrapatzen badute, denboraldian, Etxalarko Udalak lagunduko die Sara herriarekin hartaratutako urteko saria ordaintzen, 200 dozenatarako falta denaren arabera.

2.—450 dozena baino gehiago hartzen badute, horien gaineko hiru usotatik bat, edo bere diru saria, Sara herriari emango zaio denboraldiaren bukarran.

3.—Hitzarmen honek urte beteko iraupena izango du; bertze urte batetarako isilbidez luzatutzat emango da, etabar.

1965-1970 urteak. Zenbait aldaketa bada, ia urtero, nahiz ez haundia. 1971.ean, Gaztainlepoko hiru postuak galdu zituzten erabat usazaleek, eta geroztik erabiliko diren postu izenak espreski aipatuak ageri dira: Trapa, Trapa-biela, Ezponda-gaña, Larrekua, Idoikua, Belata, Bieltrepa eta Arizta. Bi herrietako alkateek sinatu zuten. Urte honetan, gainera, ordaindu beharreko sosa kopurua ere haunditu egin zen: 10.000 franko. 1972an, Gaztainlepoko postuak Saratarrentzat, eta sei mila franko, dirutan, ordaindu zitzaizkien, eztabaidaren ondotik. Usazaleekin ere izandu zituen Udalak eztabaidak: berak Sarari ordaintzen ziola-ta, 110 dozenataz gainekoa Herriarentzat gelditzeko akordioa hartu zuen Udalbatzak. Usazaleak ez zeuden ados, eta batzuk ehiza utzi nahia agertu zuten. Gaztelurekin ere bazeukan arazorik Udalbatzak. Foru Diputazioarengana jo zuen Udalbatzak, laguntza eske, diru laguntza eta Sararekiko bitartekotza laguntza eskatuz; Ezponda eta Irazoki diputatuak izan ziren egingizun horretarako izendatuak.

1970. etako hamarkada hau, gogor samarra izan da sarezko ehizarendako eta bi herrien harremanendako. 1973an Saratarrek hamar mila franko eskatu zituzten. Gazteluk eta usazaleek gehiegiztat jo zuten diru hori, eta ez zirela beraiek ordaintzeaz jabetuko, adierazi zioten Etxalarko Udalbatzari, honek ordainduko zuenaren esperantza agertuz. Beintanak onartu egin zuen sosaren ordainketa, baina baldintza honi lotua: 140 dozenataz gainekoa, Herriarentzat geldituko zen 10.000 franko hornitzeraino. Denboraldi horretan 238 dozena harrapatu ziren; urte horietako onenetakoa.

1974.ean Saratarrek gehiago eskatu zuten: 12.000 franko. Etxalar herriak 9.000 bere gain hartu zituen eta Usazale Elkarteak gainerakoa. Ondoko urtean, 1975.ean, 15.000 franko izan ziren Sarak eskatutak. Tira-bira batzuren ondotik, Etxalarko Udalak ordaindu zituen. 1976. urteak muga jo zuen, Etxalartarren onarpenaren muga alegia. Saratarrek 17.000 frankotaraino jaso zuten urteko saria, eta Etxalarko Herri gizonen «aski da» erran ere bai. «Hamar mila frankoz konformatzen badira, ongi. Bertzenaz, sareak kendu eta tirozko ehiza-leku bihurtuko dugu dena, bi zati berdinetan banatuz bi herrien artean, ttortoilarekin egiten den bezala; kontutan hartuz, Saratarrei uzten zaien Gaztainlepo aldea, heuren Etxalartarrei uzten dietena baino baliotsuagoa dela». Azkenean sarek ehiza egin zen eta 10.000 frankoz konforme gelditu zen Sara, Etxalarko Udalak emanak.

1984. urtean, hitzarmen berria sinatu zuten Sara eta Etxalarko alkateek, aintzineko akordioak deuseztatuz.

«1. Uso ehizako denboraldian, 47. mugarritik Irumuga izeneko 56. mugarriraino egiten den eskopetazko ehiza, Sara herriarentzat erreserbatua geldituko da, eta beronek arautuko du.

«2. Denboraldi berean, Etxalarko sareak eta Ibantelli arteko eskopetazko ehiza, Etxalar herriarentzat erreserbatua geldituko da eta beronek egingo du hango arautegia.

«3. Etxalarko Usategietako taldea 14 lankidek osotzen dute gaur. Sarako Udalak, ehizarako uzten duen herri-lurren uztearen ordain, biltzen den ehizaren 15eko bat hartuko du. Lankideak ugaritzeak ez du inoiz ttikituko sari neurria. Lankideak guttitzen badira, ordea, irabaziaren parte osoa hartuko du beti Sarako Udalak».

Hitzarmen hori dago gaur egun indarrean. Horren arauera, 100.000 pta. ordaindu zaio Sarari 1984.ean, 109.557 pta. 1985.ean, 91.550 1986.ean, eta 36.279 pta. 1987.ean. Urte nahiko nabarmena izan da hau, aspalditan egin den ehizarik ttikiena egin baita.

Azken hitzarmen honek badirudi aurrerapauso garbia eman duela: Sarari ordaindu beharraren zenbatasuna, denboraldiko ehizaren arabera finkatu. Horrela urteroko eztabaidari bidea ixten zaio.

ESKOPETAZKO EHIZTARIAK

Eskopetazko ehiztariez bada zerbait erran beharra. Hauek ere Usategietako historiaren partaide dira. Eredu berean aritzen dira sareazko ehiztariak eta eskopetazko ehiztariak, eta ehiza mota ³² batek bertzea oztopatu egiten du eta ez lagundu. Tiroz ehizatzen duenak, ahal diren ehiza bide guztiak nahi ditu, eta sareazko ehizak lekua nahiz denbora mugatu egiten dio. Usazaleak, bestalde, zenbat eta isiltasun eta bakardade haundiagoa, hori eta nahia go, sareazko ehizarentzat mesedegarri baita. Izan ere, tirokatzaileak zarata haundia sortzen du, urrundik sumatzen den zarata, izutuz edo urdurituz usoa, diotenez. Ez da, bada, harritzekoa, sareazko eta eskopetazko ehizturien arteko harremanen historia gatazkatsu samarra bilakatu izatea batzutan, edota ez erraza behinik behin.

Historia honetan bi garai bereizi behar dira. Etxalarko Udalak tirozko ehizaren antolaketa bere gain hartu aurrekoa eta gerokoa. Udalak lortutako antolaketaren ondorioz, egoera aldatu egin zen, eta ehizturien arteko harremanak normaldu, nolabait esateko.

Lehenbiziko garaia, 1932.urtera arte luzatu da. Zenbait gertatutakoaren aipamena egingen dugu.

1861.ean Sarako ehiztariekin sortutako afera dugu ezagutzen dugun lehena: sareetatik 200 bat metrotara kokaturik ³³ dagoen Ezpondagaña puntutik tiroz ari nahi zuten. Etxalarko nahiz Sarako usategien nagusiek ez zieten utzi. 1864ean ere gertatu ziren istiluak, «ehizturiek edozein lekutatik tiro egiten dutelako», Arribillagak dioenez. Usategietan tiro egin ahal izateko, 1932. urtera arte, nagusien baimena eskuratu behar zuen ehizturiak.

32. Modu.

33. Lekaturik.

Nagusiek banatutako txarteletan markatua zegoen nondik eta noiz tiro egin. Baina ez zuten denek berdin pentsatzen eskubide horiei buruz.

1881. eta 1882. urtean, Nafar Ehizturi Elkarteak, bi urte lehenago plaza-ratutako legean oinarrituz, sarezko ehiza gogor eraso³⁴ zuen. Elizondoko goardia zibilen buruak Usategien aurka bidalitako salakuntza eta informeak, ehizturiarik pozik hartu zuten. Epailearen eta Gobernari zibilaren esku hartzea beharrezkoa izan zen, bai Etxalarko Udalarena ere. Orduko Iruñeko «El Eco de Navarra», «Navarra», «Laburu» eta «El Semanal» egunkarietan eztabaida gogorra lehiatu zuten Gazteluk eta Nafar Ehizturi Elkarteak. Azkenean, Etxalarko Udalbatzari igorritako idazkian, Gobernari zibilak Arribillaga eta Gaztelu-ren eskubideak aitortu eta onartu zituen.

1907an, Victoriano Berruetak eta bertze hamazapik, ehizturiak seguraski denak, Etxalarko Udalbatzari idatzi zioten, 46. mugarrira zeraman bidea ireki zezatela usategien nagusiei agindu ziezaien eskatuz; nagusiek alantzen irizten zuten. Udalbatzak idazkiak eskatu bezala egin zuen. Baina Arribillagaren erantzunak honela zioen: bide bakarra behekoa da eta hori ez da itxi. Itxi dena, sareetara daramana da eta hau partikularra da. Itxi, *nolanahi tiro eginez* usazaleentzat arriskurik sortu ez dadin itxi da.

Urte batzuk geroago, 1914ean Sara-ko Abbadie-k kezka bera agertzen du: «Ezin du jarraitu anarkia honek. Eskopeta erabili ala ez, baimena guk eman behar dugu, Sarako erara. Horretarako nahitaezkoa dugu Etxalarko Udalarekin akordioa lortzea». Udalaren laguntza beharra aipatzen du. Eta hori aukeratu zuten soluziobide bakarra. Ondorengo urteetan ez ziren gauzak hobetu, ezta hobetzeko biderik ikusi ere. Ehizturi kopuru handiketarik eta beraien neurrigabeko jokabideak zekarren arriskuagatik, Etxalarko Udalarik har zezala eskatu zioten. 1932. urtean burutu zen lehen antolaketa eta beronen arautegia Nafarroako Boletin Ofizialean argitara emana izan zen. Hauxe da:

«Ehizarako Debekatutako Lurraldearen Oinarriak.

«1. Etxalarko Udalak debekatua edukiko du Frantziatik bereizten duten 44. eta 50. mugarren arteko eremu zatia, hau da, Lizariatatik Gaztainlepoko bizkarreraino, bi kilometro luze eta 150 metro zabal herri aldera, larmendi mendian.

«2. Udala «Usategiak» Elkartearekin hitzarmenduko da, sareetako ehiza elkarteari utziz, eta usazale, ehizturi eta turistaren gomenentziak errespetatu daitezkeen arduratuz³⁵.

«3. Udalak erabakiko eta prestatuko ditu, ehizturiarentzat beharrezko jotzen dituen postuak toki debekatuaren barnean, baita sare ondoan ere, baina ehiza eta usazaleen egitekoa oztopatu gabe.

«4. «Usategiak» elkarteak, edo, bertzela, Udalak izendatuak, beharko die ehizturiari adierazi trepatik, noiz ez duten tiro egin behar eta noiz bai; baina usazaleek ere ez dute sarerik bota behar lau baino guttiago badira heldu diren usoak, eta horrelakoetan ehizturiarentzat utziko dituzte.

«5. Ez dira bi jende baino gehiago jartzen ahal postu bakoitzean.

34. Jo.

35. Jabetuz.

«6. Postu guztiek zenbakikuntza ³⁶ koerlatiboa ³⁷ izanen dute, eta ehiza denboraldian, egunero goizeko 6etan, zozketa eginen da postua nahi duten eta bertan dauden ehizturiaren artean. Postua tokatzen zaionak bi peze- ta ordainduko ditu, berorretaz jabetzeko.

«10. Zozketan sartu nahi ez duten ehizturiak, edota postu gabe gelditu direnek, Lizarietaren ezker aldean ehizatzen ahal dute, bai 50. mugarritik Atxuri-raino (Peñaplata) ere.

«11. Paisaiaren edertasuna eta ehiza bitxi honen egintzak ikusi nahi dituzten turistek, ikusi ahal izango dute eta erraztasun osoz gainera, arabera- ko aginduak emango baitzaizkie zaintzaileei.

«12. Gerta daitezkeen gora-behera eta ustegabeko guztietan, Etxalarko alkatearena izango da azken hitza, «Usategiak» Elkartearen adostasunaz; edota goiko agintariena, haien eskuharmena komenigarri balitz.

Geroztik, nolana den, ehizako afera hobeki joan da. Udalaren itzala eta goardaren urbiltasuna lagungarri bilakatu ³⁸ direla dirudi. Garai baketsua- goa, dudarik gabe, 1932.etik honakoa.

Zenbat eskopetazko ehizturi biltzen da Usategietan? Hemeretzigarren azkenaldirako multzo polita etortzen zen, seguraski; bertzela ez dirudi hala- ko istilurik gertatu behar zuenik. Nola nahi dela, xehetasunik ez daukagu. Gerokoak bai. 1930. urte inguruan, Pedro Arribillagak «Estampa» aldizka- riari egindako adierazpenetan, denboraldi bakoitzez bi mila ehizturi baino gehiago etortzen direla, dio. Zozketa 1932.ean hasiz geroztik, 120 ehizturi eta gehiagok ere parte hartzen zutela badakigu. Azken urteetan urbiltzen den ehiztari kopurua nahiko haundia da: «ia ehun ehiztari egunero», zioten usoaren zai zeuden batzuk, eskopetazaleak.

1949. urtean, zozketa ordez, postuen enkantea ³⁹ erabaki zuen Udalak. Hara hemen urte horretan atera zen postu zerrenda eta diru neurriak:

Sareko 1. eta 2.a	5.000	pta. bakoitza
Sareko 3.a	3.500	»
Sareko 4.a	2.000	»
Gordeleku edo parapetua	5.000	»
1., 2. et 3. postuak	800	» »
4.a	1.200	»
8.a	1.000	»»
9.a	150	»
10.a	700	»
11.a	400	»
12.a eta 13.a	600	» »
14., 15. eta 16.a	150	» »

Ehiza postuak, Lizarietatik Gaztainlepoko gaineraino kokatuak daude.

Enkantearekin bertze aldaera batzuk ere sartu zituen Udalak, ehizako arautegian:

- 36. Numeraketa.
- 37. Segidakoa.
- 38. Sueriatu.
- 39. Subasta.

– Ehiza postu bakoitzean, hiru ehiztari sartzen ahal dira. Hortaz hiru txartela banatuko dira, sareetako postuak berriz banakakoak izanen dira.

– Agintarientzat erreserbatua egonen da postu bat, zazpigarrena, jite ⁴⁰ pertsonal eta transferiezinekoa. Hutsa dagoenean, postu gabeko herritarrek erabiltzen ahal dute.

– 5. eta 6. postua herriko hizturientzako gordeko dira. Hiru postu horiek, horregatik, enkantean sartu gabe geldituko dira.

MUGAKO AFERAK

Etxalarko usategien berezitasunetako bat, mugan lekutuak egotea da, Estatu frantsesa eta espainola arteko mugan. Lekutasun horrek ehizari arazoak sortu dizkio, Estatu arteko muga inguruko egiturak edozeri eta edonori ekartzen dizkion bezala. Muga eta muga ondoan gertatzen den eta egiten den gutzia, zorrotzago miatzen eta kontrolatzen baita.

Muga delako, polizia edo militarrengandikako baimen berezia lortu behar da ehizarako. 1825. urtean ere baimen hori eskatu behar izaten zuten, Elizondora eskatu, han baitzegoen polizia burua.

Izurri ⁴¹ gaitza Frantzian edo Espainian sumatu orduko, muga itxia gelditzen zen. Badakigu arrazoi horregatik itxita egondu zela 1832an eta 1884ean. Hala ere, urte horietan, ehizarako baimena galdetu eta eman egin zuten.

Ttortoilak ehizarako eragozpen ⁴² haundiagoak izan dira, behar bada. 1908an karabineroek jarritako oztopoengatik, Ondasun Ministeritzara idatzi zuen Joakin Arribillagak. Ttortoilak harrapatzeko, sareak mugatik haratago lekutzen ziren, mugatik metro batetara. Hortaz Sarako partean hartzen zituzten. Eltzetzuek ehiza hori, horregatik, Frantziakotzat jo zuten, Frantziako industrigintzatat jo ere eta ttortoilak inportazio gaitzat, Espainiara inportatua. Ehiza lanak non eta nola egiten ziren azaldu ondotik, Arribillagak hau eskatu zuen:

1. Ttortoilak ehizarako behar diren sare, makila eta gainerako tresnak ez dezatela galdu beren naziotasuna, muga marra igarota, 46. mugarri zaintzako gizonak bere begiz ikusten ahal badituzte.

2. Merkantzia nazionaltzat jo dezatela, karabineroen begibistan eta tresneria espainolez harrapatutako ttortoilak.

3. Aitzinako bi eskariak ez bazaizkio egokiak iduritzen, leku hori inportaziorako gai kontsidera dezala.

J. Arribillagak ehizaren alde ematen dituen arrazoiaren artean, «herriarentzako abantailak» gogoratzen ditu, «lau hilabetez Etxalarko langileriaren gehiengoa, industrigintza horretatik bizi data». Urte berean baietza eman zien Ministeritzak Arribillagaren eskariei.

Oztopo bide ugari izanagatik, ez da ia egundaino ehiza egin gabe utzi. Hain ahalegin haundiak egin dituzte usazaleek, eta halakoa izan da agintariek ehiza mota honi erakutsi dioten begirunea.

40. Izaera.

41. Gaitza larri eta kutsakorra.

42. Traba.

Gerratea da mugako aferak gehitzen dituenetakoa. Hemezortzigarren eta aitzinako mendeetan Frantziak eta Espainiak elkarren kontra gerra egin zutenean, ez zen noski ehizarik egin izanen. Baina joan den mendeko guda karlistetan (1833-39 eta 1872-76), eta mende honetako guda mundialetan (1914-18 eta 1939-45) ez zen ehiza moztu, 1944. urtean izan ezik. Nahaste gehiago jasan behar, bai, dudarik gabe. 1914ean Saratik Iguzkiagerrera igorritako gutunean honela dio: «sareak Espainiako lurraldean daudela erran dezatela, gomendatu behar zaie ehizturiei». Espainia ez baitzen partaide guda horretan. Espainiako gerran ere (1936-39) bizirik iraun zuen sarezko ehizak.

DATU ZAHARRAK

Noiztik egiten da Etxalarren ehiza mota hori? Ez dakigu. Baina aspalditik egiten dela, bai, badakigu. Azken bi mendeetako xehetasun frango ageri da lan honetan. Lehenagoko berririk, ere, ordea, ezagutzen dugu.

L. Juzan Dominique, 18. mende azkenaldian, honela mintzatzen zaigu:

«Badira lau sare. Berauetatik bi espainolenak dira eta frantziarrenak bertze biak; espainol dermioan zabaltzen dituzte. Ehizaren gainerako zeregina frantzes eremuan burutzen da. Etxalarko biztanleek, bertako bi herritarrei utzi zieten aintzinan, uso ehiza egiten den lekuan eurek bakarrik ehizatzeke eskubidea. Gibelera egin nahi izan zuten gero, emana baliogabetuz, baina alferrik. Sareen nagusi horietako bat haundiki aberatsa da, eta bertzea ikazkina. Behartu nahi izan dute hau bere ehiza eskubidea saldu dezan, eta dirutza haundia ordainduz, balioaren halako hamar gehiagokoa, bizitza oso eroso bihurtuko liokeena. Tinko egin dio berak aberastasun tentabide honi. Akab eta Jezabel-en antzera mehatxatzen ⁴³ dute; harrotasuna bakarra gelditzen zaio. «Urte guztian lan egin ondoren, dio berak, arrazoizko jotzen dut berrogei egunez olatzea, eta nire hilobei plazer hori ez kentzea ere bidezko da. Nahiago diet ondra utzi aberastasunak baino; hauek gal ditzakete beren errurik ⁴⁴ gabe, hura ez».

Nik ikusi dut gizon hau: bere bi semeekin ehizatzen du».

1746. urtean, Nafarroako Errege Kontseiluko Auzi Entzulea, Isidoro Gil de Jaz, «herri honetako Usategietan egondu zen bi egunez entretenitzen». Alkateak lagun egin zion, ta Herriaren kontura egondu zen. Herriko kontu liburuan ageri da Usategien aipamen hau, aipamen bitxia egitan, ez baita bertzerik ikusten.

—Jendartean ezagunena, 1664-1668ko auzia ⁴⁵ da. Argi eta zabal daukagu paperetan auziaren gaia eta garapena ⁴⁶, eta bertan berri zehatz interesgarriak eskaintzen zaizkigu. Auzitara jo zutenak, Etxalarko Gaztelua eta Andutzea etxeetako nagusia, Juan Goietxea, eta Petrisantzena etxeko nagusia, Domin-

43. Amenazatzen.

44. Kulparik.

45. Pleitoa.

46. Desarroiloa.

go Iturria, izan ziren. Auzi denboran Domingo hil eta Estebanek, bere semeak, jarraitu zuen. Auzitara eramana, Juan Jauregi, Etxalarko Parrokia-
ren erretorea zen. Auziaren zergatia edo gaia? Goietxea eta Iturriaren uste-
tan, Jauregi erretoreak ez zituen haien eskubideak errespetatzen. Haien sala-
kuntzak, zehatz-mehatz, honela zioen:

Juan Jauregik, Nonparabos edo Txorilepo izeneko lekuan uso ehizarako sareak paratu ditu. Bai etxola eraiki ⁴⁷ ere. Eta hori egiteko ez du eskubide-
rik, diote Goietxea-Iturriak. Txorilepo lekua haiena da, Espainiako eta
Frantziako erregeen itun ⁴⁸ eta mesedeen ondorioz. Yaurmendi lepoan eta
lekuan igarotzen diren mendiusoak harrapatzeko eskubidea, haiek eta haien
gurasoek eta aintzinakoek oroitezinezko denboretan erabili dute, eta inork
ez ditu oztopatu eta kezkatu.

Jauregik, bazuela Txorilepon sareak lekutzeko eskubidea, erantzun
zuen, horrela usoak ehiza zitzan; lehen ere egin zuela hori eta, nahiz jakin,
ez ziotela eragozpenik ⁴⁹ jarri salatzaileek. Hauen sareei ez ziela kalterik
egiten, hauek Yaurmendin eta hark berriz Nonparabos-en paratzen zitue-
nez. Egiten zuen bakarra, haien sareetatik ihes joanak harrapatzea zela, eta
urrundik.

Batzuak eta bertzea beren argudioak ugaritzen eta errepikatzen aritu
ziren, testigutzak ere bilduz. Jauregi-ren esanetan, jende gehiago ere izan
zen leku berean sareak paratu zituena; Felipe Yerobi, bertan apez zegoena,
adibidez. Etxola jasotzeko teila Herriak utzi ziola ere argudiatu zuen, eta ez
ziola inolako eragozpenik adierazi. Inork ez zuen ukatu Goietxeak eta Itu-
rriak Yaurmendin ehiza egiteko aspalditik zeukaten eskubidea. Txorilepon
bertzek ere sareak jarri zituztela egia zela, ados zeuden denak. Baina, diote
Goietxea eta Iturriak, berauen baimenaz jarri omen ziren.

1667ko azaroaren 26an, Apezpikutegiko Bikario Nagusiak epaia ⁵⁰ eman
zuen, afera zintzilik utziz, bere lekuan eta astiro begiratu behar zela esanez.
Iturria eta Goietxeak Kalahorrara jo zuten, han baitzegoen Auzitegi gorena.
Azkenean, 1668ko abuztuaren 31n, Juan Jauregi erretoreak, Nonparabos
edo Txorilepoko postuan ehizatzeari uzteko agindua hartu zuen, Iruñeko
Apezpikutegitik.

1665.a baina lehenagotik sarezko ehiza egiten zen, Iturria eta Goietxea-
ren esanaren arabera. Auzian testigantza emandako batek, Saran apez ze-
goen Juan Luzuk, baieztapen hau egin zuen: berak duen berrogei urtetako
oroimenean, Etxalarko Andueza etxea eta Sarako Petrisanzena etxea Usate-
gietan ehizatzeke eskujabe ikusi ditu beti; duela hamabi urte 80 urtetan
hildako bere aitari gauza bera entzun zion, eta honek aunitz jende zaharrari.

Juan Luzu-ren goiko baieztapen horretan, «Sarako Petrisanzena etxea»
izendatzen du, Usategien nagusi. Domingo eta Esteban Iturria Etxalarko
Petrisanzena etxeko nagusiak izan ziren, hori egiaztatu dut Elizako liburue-
tan. Etxalarren jaio eta hil ziren eta bertan lurperatu zituzten.

47. Egin.

48. Akordio.

49. Trabarik.

50. Erabakia.

– Gizon horien erranez gainera, badugu berririk paper eta liburu zaharretan. Honako hau, Iruñeko Apezpikutegiko artxibuan aurkitu nuen.

1629an Etxalarko Parrokian apez zegoen Urrutia-ko Tomas-i, Iruñeko Apezpikutegiko fiskaleak hau leporatu zion: «berak hartzen ditu errentan Usategietako sareak». Apezak hori egitea ez zegoen ongi ikusia. Baina bazen zerbait okerragorik. Sareak jasotzerako Usategietara joaten zen, beraren zereginetan parte hartuz, eta «sare lekura eguna argitzerako ailegatu ahal dadin», meza goizago ematen zuen. Lekukoek⁵¹ baieztatu egin zuten Urrutia-ko Tomasek Usategian parte hartzen zuela, sareak bere gain hartuz. Sareko sokatik tiratzen ikusi zuela, dio batek. Eta xehetasun gehiago eskaintzen digute. Bi lekukoren aitopenetan «azken bi edo hiru urteetan Andueza etxearenak (gaur Andutzea) diren sareak errentatu ditu». Zortzi dukatu zen urteko errenta saria. Bestalde, Tomas berak eta bertze lekuko batek diote, erabiltzen zuen eta administratzen zuen sarea, Zabaletako Martin bere koinatuarena zela. Bada lekukoa, Tomasek sareak Berako lagun batekin hartu dituela, esaten duena.

Testigantza hauek kontutan hartuz, ez dago sobera garbi zenbat eta noren sareak siren Urrutia-ko Tomasek erabili zituenak. Andutzekoak bakarrik? Andutzeko nagusia, Gazteluko nagusi bera zen. Edota Andutzeko sare bat eta Martin Zabaleta-ren etxekoa bertzea? Eta ze etxe da hau? Zabaletako Martin eta Berako «laguna» bera da? Guretzat interesgarri diren xehetasun horiek, ez zuten garrantzirik Auzitegiarentzat⁵², eta ez zuen horien garbitasun lanik hartu.

31 urte aintzinago, 1598.ean, Etxalarko Parrokiaren hildakoen 1. Liburuan agertzen zaigu bertze aipamen hau:

«Martxoaren 11n Zala-ko Joanes hil zen eta erran zuen bere amak usategi batzuk eman izandu zitiola Zabaleta-ko Juan jaunari, herri honetan erretore izanduari, entretenigarritako bakarrik, eta erretorearen heriotzerakoan joan zitzaien haren ama, eman zizkionari itzul ziezazkiola, erretoreari erranez, eta baietz erantzun zion. Eta, itzuli ez zituelako, aipatutako erretorearen heredoengandik kobra zezatela izan zen bere azken nahia, testamentuan espreski idatzia, eta ongi kobraturik Eliza egiten zuen usategi eta sare horren heredero».

Ze usategi eta ze sare zen hori? Gaztelurena agertzen dena gero? Edo Iturriarena agertzen dena? Edota bertzeren bat?

Iruñeko Apezpikutegiko auzi paperetan adierazten denez, 1487. urteko bazen Usategia Etxalarren. Etxalarko Udalbatzak Bera-ko erretorearen aurka gauzatutako auzi batetan egiten da aipamen hori.

Eskriburik zaharrena, gai honetaz, hauxe dugu: «Los palombares de Ezcusuak dados de el abbat de Echalar a D. Johan a perpetuo per trebuto de dos docenas de palombas frescas pagaderas al primero dia de Yenero de cadayuno». Etxalarko usategiak 24 uso bizi ordaindu behar zituen urtero urteberritan. Eskribu hau 1378. urtekoa da, eta «Compto de Garcia Lopez de Lizasoain»-en laburpenean ageri da, Iruñeko Kontu Ganbaran.

51. Testiguen.

52. Tribunalarentzat.

USATEGIEN IZENA ETA TURISMOA

Ehiza molde hau hain bitxia denez, ikusle asko erakartzen du, orain eta lehen. Herri ttikia izanik ere, nahiko ezaguna da Etxalar, edo aditua, eta usategiengatik preziski. Ehiztariez gainera, jende pila urbiltzen da Usategietara egunero uso denboraldian; larunbat eta igandez, gehiago. Jai egunetan, adin guztietako ehunka jende estaltzen ditu Yarmendiko bide, bidaxka eta inguruak, Lapurdi, Gipuzkoa, Nafarroa eta urrunagotik ere etorriak. Egun nabarmena, urriaren hirugarren igandea izaten da azken urteotan: goizez usategi ingurua eta arratsaldez herriko plaza, bisitariz eta turistaz gainezka jartzen da, besta giro ederraz gozatuz. «Usategietako Eguna» ospatzen da.

Iruñeko «El Eco de Navarra» egunkariak, 1899ko otsailaren 17an honela zekarkien: «Etxalarko Usategien entzuteak mugak gainditu ditu, eta atzerritar⁵³ ehizturi aunitz erakartzen du. Maine-Reid kapitainak, amerikar idazle ospetsuak, duela berrogei urte eta gehiago argitaratutako «Hartz ehiztariak» nobelan, Nafar Pirineoko usategi hau goraiatzen zuen; eta Europako hiriburu batzuetako egunkariak eta ehiza aldizkariak idatzi dute Etxalarko uso ehizaz». Egunkariaren testua, honainokoa.

Felipe Gazteluk eta Joakin Arribillagak 1881ean Gobernari zibilari igorritako idazkian, usategiek herriari zekarkiotez mesedeaz mintzatu ziren. «Uso ehizak janari-edari salmenta haunditu egiten du, sasoi horretan kanpotar aunitz etortzen denez, ehiza ihardunak ikus nahiak erakarriak». Urrunok eta izen ezagunekok ere urbildu ditu Etxalarrera sarezko ehizak. Napoleonek, Frantziako enperadorea, izan zen bisitari 1868.ean, bere emazte eta semearekin. Alfontso XII.a, Espainiako erregea, behin baino gehiagotan etorri zen. Oraindik bizi direnek, horren seme Alfontso XIII.aren etorrera gogoratzen dute. Eta errege honen umeak ere urbiltzen ziren Usategietara.

Caro Baroja-ren «Navarra 4 estaciones» filmean, usategi hauetako ihardunak nahiko ongi jasoak daude eta azalduak. Telebistak ere eman du, Madrilekoak eta Euskal Telebistak. Kazetari, argazkilari eta abar urbiltzen da urtero Yarmendira ehiza denboraldian; Nafarroako eta Gipuzkoako egunkarietan irakur dezakegu urtero usategi hauetaz idazkiren bat.

Ikusle etorreraz baliatu nahiz, gogokeria bitxia argitu zuen norbaitek 1940. urtean. Usategietara zihoan ehizturi nahiz turista auto guztiak, bortz pezeta ordaindu behar zuen Etxalarko FET eta JONSen Sección Femeninarentzat. Orduko (Espainiako gerratea bukatu berria zen) egoera eta giroa kontutan hartu behar, gauza ulertzeko.

1963an, Madrileko El Pardo-n Estatuak daukan ehiza Barrutitik idatzi zioten Etxalarko alkateari. Usoa ugari izaki barruti hartan eta nola ehizatu jakin nahiz, etxalartarren aholkuak eskatu zituzten, inork jakitekotan hauek jakinen zutela eta.

Proposamen aipagarria izan daiteke, 1984ean Etxalarko Herriko Etxera iritxi zena, TVEko «A pleno sol» saioaren zuzendariak, Gonzalo Sebastian Erice-k eginga. Sareetan biltzen zen uso guztiei eraztuna paratu, «Etxalar 85», «Etxalar 86», etabar; herriaren izena eta urtea idatzita zeraman eraztuna, eta «Etxalarko Bakearen Eguna» izendatuan, usoak, denak, libre utzi. Ze helburu zuen inizatiba honek? Usoen ibilera aztertu, alde batetik, nondik, nora

53. Kanpotar.

eta abar. Eta egintza sinbolikoa, bertze aldetik. Usategiek jasanen luketen galera kita zedin, Madrilgo «Consejo Superior de Investigaciones Científicas» erakundeari laguntza eskatu beharko litzaioke. Ez dirudi haintzakotzat hartu duenik inork iniziatiba hori.

GOGOETA GISA

Interesgarri litzateke, behar bada, Usategien mundu horretan ageri den zenbait alderdiren azterketa. Hala-nola, ehiza honen iraupena, antolaketaren sozialgintza, Euskal Herriko aintzinateko jendearen bizitzarekiko loturak, ikuspegi ekologikoa, etabar.

Azken bi mendeetan sarezko usategi gehienak desagertu egin dira, eta Euskal Herrian, hala ere, batzuk irauten dute. Zergatik? Herri honek aintzinakoen ohitura eta bizi-balioekiko duen begirune eta atxekimenduagatik? Euskararen iraupena, jende guztiak fenomeno harrigarritzat jotzen du, hainbertze urte eta kondairaren gora-behera guztien gainetik, hainbertze konkista eta menperapen kulturalen gainetik, Herri honek euskara mantendu izana. Euskararekin batera, edota hori bezala, bertze elementu kulturalak mantendu ditu. Ehiza modu honen superbizipena, ez ote litzateke ikuspegi zabalagoan ulertu beharko, Herriaren eta bere kulturaren superbizipenaren errealitate orokorrean?

Euskal Herrian lehendik etorrita gelditzen zaizkigunen artean, herri jabetza edo komunala da. Mendetako indibidualtasun mugimenduak ez du erabat desagertaraztea lortu. Jabetza sozial horren kideko izan liteke, Usategien antolakuntzan ikusten den soziasuna? Badira nagusiak eta langileak (usazaleak), baina ez da soldatapekorik, soldatarik ere ez baita. Irabazten dena dena da, nagusi eta langileena, eta denen artean banatzen da. Aunitz uso biltzen bada, denentzat da denboraldi ona; guti harrapatzen denean, denek dute guti hartzen. Ugaria eta urria, nola bat nola bertzea, elkarbanatzen dira. Hain zuzen ere, azken bi urteetan hautsi da sistema hori, soldata sistema sartuz.

Naturarekin bizitzea. Naturarekin lotua dagoen fenomenoaz ari gara, industriaren zarata eta kutsaduratik urrun. Lurra, bazka, zuhaitza, haize eta ur garbia, baretasun eta isiltasuna: hauek dira ehizaren azpiegitura. Gizakia-rena ere horrelakoa zen lehen, eta horrelakoa da oraindik ere alderdi batzutan eta maila haundi samar batetan. Lurra landuz, larrez baliatuz, eguzkia eta euriaren menpean, mendia etxearen lekugunea eta ingurugunea izanez, eta aberea eta azienda eguneroko laguna, jendea naturari itxekia bizi da, elektronika aro honetan. Eta hor lekutuz, eta ez inon gehiago, bilaka daiteke ulergarri uso ehiza, sarezko uso ehiza batez ere. Ez dugu ahantzi behar aspaldiko mendetan egindako ehiza mota dela, gizakiaren naturarekiko harremana eta lotura haundiagoa zen denboratakoa. Begirale gogoetatsu bat aisa ohar daiteke, behar bada, ehizaren nolakotasunaz; naturako formez eta naturaren elementuez baliatzen da gizona: mendilepoa, arbolak, egazti harrapari iduria. Naturaz baliatu, natura erabili, baina hondatu gabe, ingurua errespetatuz. Ez da somatzen hemen nolabaiteko gizaki eta natura arteko elkartasuna?

Ehizarendako arriskua, aipatutako egitura eta elementuetatik urruntzen duten bertze elementu batzuk dakarte: kutsadurak, zaratak, nolanahiko na-


turaren oinperapen eta suntsipenak. Zenbat eta kontrol gabeko industria ugariago, zenbat eta ibiltari zanpatzaile kopurua haundiago, zenbat eta tiro hots eta zikinkeria gehiago, orduan eta urbilago ehizaren heriotzea. Hori kontutan edukiz konprenitzen ahal da, agian, ehizaren zailtasun gero eta nabariagoaren zergatia. Eta ez da nire asmoa epaiketa bidetan sartzea. Azterketa haundiagorik gabe horrelako eginkizunetan murgiltzea, arinkeria gerta daiteke. Azpimarratu nahi nuke, hori bai, ez dirudiela bidezko noragabeko eta nolagabeko naturaren erabilpenak, nolanhiko eta deusi begiratu gabeko jokabideak. Nolanahi den, uso ehizaren gutximena garbi ageri da lantxo honen «EHIZAREN KOPURUA» atalean. Jean Hiriartek dakarren arabera, Euskal Herrian diren *hamar Usategietan*,

38.100 uso harrapatu zituzten 1975. urtean,

19.056 uso harrapatu zituzten 1977. urtean,

15.561 uso harrapatu zituzten 1978. urtean.

Nabaria da gutximena, eta nabaria bilketaren ttikitasuna ere.



Uso zenbagailua. 1880. urte ingurukoa da. Brontzezkoa. Usoak kontatzeko erabili da, arbol batetik zintzilikatuz. Bi esfera dauzka, bakoitza bere orratzarekin. Goiko esfera, ttikia, dozena arteraino kondatzeko da. Behekoa, haundia, dozenak kondatzeko, 50 dozena arteraino. Azken urte hauetan ez dute usategietara eraman. Iguzkiagerrea etxean dago.

